LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA I-DE REDES ELÉCTRICAS INTELIGENTES SAU ENPRESAREN (IBERDROLA TALDEA) ARTEKOA, URDAIBAICO SARE ELEKTRIKOA ETA HAREN ERAGIN-EREMUA ELEKTRIFIKATZEKO, MODERNIZATZEKO ETA HAREN INGURUMEN-INPAKTUA GUTXITU DADIN BULTZATZEKO, EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN (NEXT GENERATION EU) ESPARRUAN.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI Y LA EMPRESA I-DE REDES ELÉCTRICAS INTELIGENTES S.A.U. (GRUPO IBERDROLA), PARA IMPULSAR LA ELECTRIFICACIÓN, MODERNIZACIÓN Y DISMINUCIÓN DEL IMPACTO AMBIENTAL DE LA RED ELÉCTRICA DE URDAIBAI Y SU ZONA DE INFLUENCIA EN EL MARCO DEL PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA – FINANCIADO POR LA UNIÓN EUROPEA – NEXT GENERATION EU.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko XXaren XX(a)

En Vitoria-Gasteiz, a XX de XX de 2023

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

REUNIDOS

Batetik, María Aránzazu Tapia Otaegui andrea, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua, bere karguan jardunez, lehendakariaren irailaren 7ko 23/2020 Dekretuak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua izendatzeko dena) ezarritako izendapena betez.

De una parte, Doña María Aránzazu Tapia Otaegui, Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, en el ejercicio de su cargo en virtud del nombramiento efectuado por Decreto 23/2020, de 7 de septiembre, del Lehendakari, de nombramiento de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente,

Bestetik, Eva María Mancera Flores andrea (IFZ: 8.854.811-H), I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz (egoitza soziala: San Adrián etorbidea 48, 48003, Bilbo), kontseilari delegatua den aldetik, indarrean dagoen 2020ko abenduaren 20an hartutako erabaki sozialaren arabera.

De otra parte, Doña Eva María Mancera Flores, con NIF 8.854.811-H, actuando en nombre y representación de la sociedad I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U., con domicilio social en la Avenida San Adrián número 48, 48003 de Bilbao, en su condición de Consejera Delegada, según el acuerdo social que se adoptó con fecha 20 de diciembre de 2020, que permanece vigente.

Bi alderdiek dagokien ordezkartzaren arabera jardun dute, eta elkarri onartu diote Hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa eta, horretarako,

Actuando ambas en la respectiva representación que ostentan, se reconocen recíprocamente capacidad de obrar suficiente para firmar el presente Convenio, y a tal efecto,

ADIERAZTEN DUTE:

LEHENENGOA. – Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) 8. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eskumena dauka arlo hauetan: ingurumena, klima-aldaketaren aurkako borroka, ekonomia zirkularra eta natura-ondarearen kontserbazioa.

Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren bidez, honako eremu hauetan jarduten du:

- a) Ingurumen-politika planifikatzea.
- b) Ingurumenari eragiten dioten jarduerak antolatu eta ebaluatzea.
- c) Ingurumenari eragiten dioten jarduerak zaindu, ikuskatu eta kontrolatzea.
- d) Klima-aldaketa eta ekonomia zirkularra.
- e) Atmosfera eta lurzorua babestea.
- f) Uren politika.
- g) Ustiapen hidraulikoak, ubideak eta ureztatzeak.
- h) Ingurumenari buruzko informazioa, parte-hartzea eta prestakuntza.
- i) Natura-ingurunearen ondarea babestu eta zaintzea.

EXPONEN

PRIMERO. - El Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, en su artículo 8, determina que el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio es competente en materia de Medio Ambiente. Lucha contra el cambio climático; Economía circular y Conservación del patrimonio natural.

Concretamente, el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, a través de la Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental, actúa en las áreas de:

- a) Planificación de la Política ambiental.
- b) Ordenación y evaluación de las actividades con incidencia en el medio ambiente.
- c) Vigilancia, inspección y control de las actividades con incidencia en el medio ambiente.
- d) Cambio climático y Economía circular.
- e) Protección de la atmósfera y del suelo.
- f) Política de Aguas.
- g) Aprovechamientos hidráulicos, canales y regadíos.
- h) Información, participación y formación ambiental.
- i) Protección y conservación del patrimonio del medio natural.

- j) Ingurumen-ebaluazioa.
- k) Garapen jasangarria bermatu eta sustatzea.
- l) Ingurumen-erantzukizuna eta -diziplina.
- m) Ekoberrikuntza sustatzea.

- j) Evaluación ambiental.
- k) Garantía y fomento del desarrollo sostenible.
- l) Responsabilidad y disciplina ambiental.
- m) Fomento de la ecoinnovación.

BIGARRENA. – Gobernu Kontseiluak, 2023ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika islatzen duen eta Eusko Jaurlaritzak ingurumenaren arloan hartutako konpromisoa jasotzen duen 2030erako Euskadiko V. Ingurumen Esparru Programa onartu zuen. Programa horrek gure lurraldeko ingurumenaren egoerari buruzko ikuspegia eskaintzen du eta erronka estrategikoak ezartzen ditu:

- a) 1. erronka: POLITIKEN TRANSBERTSALIZAZIOA. 2030erako ingurumen-plan eta -helburuen ikuspegi integrala, interdependentzia eta ingurumenekoak ez diren eremuekiko lotura.
- b) 2. erronka: OSASUNA ETA INGURUMENA. EAEko ingurumen-politikan osasunari begira arrisku nabariak dakartzaten sektore berriak sartzea, eta ingurumen-osasunaren garrantzian sakontzea.
- c) 3. erronka: JASANGARRITASUN LEHIAKORRA. Ekoizpen-sistema eraldatzea, berrikuntza jasangarritasunaren ikuspegitik birbideratzea eta ingurumen-konpromiso handia duten sektore ekonomiko lehiakorak eratzea.
- d) 4. erronka: KONSUMO-EREDU KONTZIENTEA. Jasangarritasun-irizpideak dituen kontsumo-eredua, ekoizpen-ereduarekin duen lotura ziurtatuz.
- e) 5. erronka: FINANTZAKETA JASANGARRIA. Inbertsioak handitzea eta

SEGUNDO. - El Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 21 de marzo de 2023, aprobó el V Programa Marco Ambiental de Euskadi 2030, documento en el que se plasma la política ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se recoge el compromiso del Gobierno Vasco con el medio ambiente.

El citado programa ofrece una visión de la situación del medio ambiente en nuestro territorio y establece los retos estratégicos:

- a) Reto 1: TRANSVERSALIZACIÓN DE LAS POLÍTICAS. Enfoque integral de los planes y objetivos ambientales para 2030, interdependencia y vinculación con áreas no ambientales.
- b) Reto 2: SALUD Y MEDIO AMBIENTE. Incorporación a la política ambiental vasca de nuevos vectores que constituyen riesgos evidentes respecto a la salud, profundizando en la importancia de la salud ambiental.
- c) Reto 3: SOSTENIBILIDAD COMPETITIVA. Transformación del sistema productivo, reorientación de la innovación en clave de sostenibilidad y configuración de sectores económicos competitivos con un alto compromiso ambiental.
- d) Reto 4: MODELO CONSCIENTE DE CONSUMO. Modelo de consumo con criterios de sostenibilidad, asegurando su interrelación con el modelo de producción.
- e) Reto 5: FINANCIACIÓN SOSTENIBLE. Ampliación de las inversiones y

EAEren finantza-sektorea birbideratzea, enpresa eta proiektu jasangarriei laguntza emateko.

- f) 6. erronka: MONITORIZAZIO ETA KUDEAKETA AURRERATUA. Erabakiak adierazle sendoak oinarri hartuta hartzea, eta ingurumen-aldagaien bilakaera eta helburuen betetze-maila modu parte-hartzaile eta gardenean monitorizatuta

reorientación del sector financiero vasco para dar apoyo a empresas y proyectos sostenibles.

- f) Reto 6: MONITORIZACIÓN Y GESTIÓN AVANZADA. Toma de decisiones basadas en indicadores sólidos, monitorizando la evolución de las variables ambientales y el cumplimiento de los objetivos de forma participativa y transparente

HIRUGARRENA. – I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU (aurrerantzean, I-DE) energia elektrikoa banatzen duen enpresa bat da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan presentzia handia du, bertan hainbat jarduketa egiten baititu aktibo eta instalazioren bidez, besteak beste, linea elektrikoak.

LAUGARRENA. – Elektrifikazioaren azelerazioaren eta trantsizio energetikoaren egungo testuinguruan, eta kontuan hartuta azpiegitura elektrikoak ezinbestekoak direla ekonomia deskarbonizatzea lortzeko trantsizio energetikorako, I-DEk beharrezkotzat jotzen du Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren inguruneke sare elektrikoa indartzea eta modernizatzea, haren ahalmena eta fidagarritasuna hobetzeko, eremuko garapen ekonomikoak eskatzen dituen beharrei erantzunez.

BOSGARRENA. – I-DE enpresak, Iberdrola Taldearen gizarte-erantzukizun korporatiboko politika eta ildoak jarraikiz, balio-ekarpen jasangarria egiteko konpromisoa hartu du, jarduten duen sozietate, herritar, bezero, akziodun eta komunitateen onuran. Horrela, I-DE enpresak, ekosistemaren kontserbazioa jasangarritasun globala lortzeko oinarritzeko baldintza dela jakinda, eta bere jarduerak gauzatzeko hainbat ekosistematan eragina izan

TERCERO. - Que I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U. (en adelante, I-DE) es una empresa de distribución de energía eléctrica con una importante presencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, donde desarrolla su actividad a través de múltiples activos e instalaciones, entre los cuales se encuentran las líneas eléctricas.

CUARTO. - Que en el contexto actual de aceleración de la electrificación y transición energética, y teniendo en cuenta que las infraestructuras eléctricas son activos imprescindibles para la transición energética hacia la descarbonización de la economía, I-DE, considera necesario reforzar y modernizar la red eléctrica del entorno de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai para mejorar su capacidad y su fiabilidad, dando respuesta a las necesidades que el propio desarrollo económico de la zona está demandando.

QUINTO. - Que i-DE, en línea con las políticas y directrices del Grupo Iberdrola en materia de responsabilidad social corporativa, tiene asumido el compromiso de contribuir a la creación de valor de forma sostenible para la sociedad, ciudadanos, clientes, accionistas y comunidades en las que desarrolla sus actividades. Así, i-DE, plenamente consciente de que la conservación del

behar duenez, biodibertsitatearen kontserbazioa sartu du enpresa-estrategian, eta natura-ingurunea babesteko eta kontserbatzeko konpromisoa hartu du (abifaunan arreta handiagoa jarritz). Hori lortzeko, berariazko neurri prebentibo eta konpentsatzaileak hartuko ditu, jarduten duen lekuetan prebentzioa edo berroneratzea sustatzeko.

Ingurumenaren aldetik bereziki sentikorrak diren inguruneetan sare elektrikoek ahalik eta eragin txikiena izan dezaten bermatzea da i-DEren erronka handienetako bat, ingurumenaren babesa eta eremu horien garapena uztartzeko, bai eta benetan jasangarria den deskarbonizazioa lortzeko ere

ecosistema constituye una condición esencial para la sostenibilidad global y del hecho de que el desarrollo de su actividad implica interacciones con diversos ecosistemas, ha integrado la conservación de la biodiversidad en su estrategia empresarial y tiene asumido el compromiso de protección y conservación del medio natural (con especial atención a la avifauna) mediante la adopción de acciones específicas preventivas y compensatorias encaminadas a la prevención o restauración de las zonas en las que opera.

Garantizar la mínima afección de las redes eléctricas en entornos medioambientalmente especialmente sensibles es uno de los mayores retos de i-DE para conseguir compaginar la protección del medio ambiente con el desarrollo de dichas zonas y con una descarbonización realmente sostenible

SEIGARRENA. – EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK eta I-DE enpresak historikoki elkarrekin lan egin dute, helburu komunak lortzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean ondorio onuragarriak sustatzeko.

SEXTO. - Que la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI e I-DE han trabajado históricamente dentro de un marco de colaboración para facilitar el logro de objetivos comunes y potenciar resultados favorables para el entorno medioambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

ZAZPIGARRENA. – Natura-ingurunea errespetatzeari eta babesteari dagokionez, bi alderdiek elkarrekin lan egin ohi duten esparruaren barruan, bi alderdi sinatzaileek ahaleginak koordinatzen jarraitzeko asmoa dute, kasu honetan elektrifikazioa eta trantsizio energetikoa bultzatzeko, sare elektrikoa indartuz, modernizatuz eta digitalizatuz, bada, erresilienteagoa, kalitate handiagokoa, seguruagoa eta sendagoa izan dadin, eta, era berean, lurraldearen balioekiko integrazioa eta

SÉPTIMO. - Que, dentro del marco habitual de colaboración de las partes en relación con el respeto y protección del medio natural, es intención de ambas partes firmantes seguir coordinando sus esfuerzos, en este caso para impulsar la electrificación y la transición energética, reforzando, modernizando y digitalizando la red eléctrica para incrementar su resiliencia, calidad, seguridad y robustez, mejorando a su vez su integración y respeto a los valores del territorio y su

errespetua eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako abifaunarekin duen elkarreragina hobetuz.

ZORTZIGARRENA. – Xedatutakoaren harira, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK eta i-DE enpresak helburu berdinak dituzte ingurumenari eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako sare elektrikoa modernizatu eta digitalizatzeari eta haren erresilientzia hobetzeari dagokienez. Ondorioz, alderdiek lankidetzaz hitzarmen hau sinatzea adostu dute, honako hauen arabera:

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA. - Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORAREN eta I-DEren arteko lankidetzaz esparrua ezartzea, sare elektrikoa indartu, modernizatu eta digitalizatzera eta haren erresilientzia, kalitatea, segurtasuna eta sendotasuna hobetzera bideratutako jarduketak egiteko, eta, aldi berean, lurraldearen balioak integratzeko eta haiekiko errespetua eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako abifaunarekin duen elkarreragina hobetzeko, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoetik datozen Europako Funtsen zati baten kargura.

Hitzarmenaren xedea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 4. osagaiko (Itsasoko eta lehorreko ekosistemak eta horien biodibertsitatea kontserbatzea eta lehengoratzeta) 2. inbertsioan (Lurreko eta itsasoko biodibertsitatea kontserbatzea) bildutako jarduketak bat da.

BIGARRENA. – Izaera eta araubide juridikoa

Hitzarmen hau administrazio-hitzarmena da, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren

interakzioarekin la avifauna en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

OCTAVO. – Que, en relación a lo expuesto, la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI e i-DE comparten los objetivos medioambientales y de modernización, digitalización y mejora de la resiliencia de la red eléctrica en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. En consecuencia, las partes firmantes acuerdan formalizar el siguiente convenio, con arreglo a las siguientes

ESTIPULACIONES

PRIMERA. - Objeto de Convenio

Es objeto del presente Convenio establecer el marco de colaboración entre la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI e I-DE para la realización de actuaciones orientadas a reforzar, modernizar y digitalizar la red eléctrica y mejorar su resiliencia, calidad, seguridad y robustez, mejorando a su vez su integración y respeto a los valores del territorio y su interacción con la avifauna en la reserva de la biosfera de Urdaibai, con cargo parcial a los Fondos Europeos procedentes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.

El objeto del Convenio constituye una actuación incluida en la Inversión 2 (Conservación de la biodiversidad terrestre y marina), comprendida en el Componente 4 (Conservación y restauración de ecosistemas marinos y terrestres y su biodiversidad), del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

SEGUNDA. – Naturaleza y régimen jurídico

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se registrará por los artículos 47

urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53. artikulura bitartekoak izango ditu arau, bai eta arau hauek ere:

- a) 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- b) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- c) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.
- d) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- e) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.
- f) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren ataletako neurrien mugarri eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko jarraipena egiteko eta neurrien aurrekontu- eta

a 53 de Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como por las siguientes normas:

- a) Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.
- b) Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- c) Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
- d) Reglamento (UE) número 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.
- e) Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
- f) Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del Plan de Recuperación, Transformación y

kontabilitatea-betearazpenaren jarraipena egiteko.

- g) 15/2022 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen.
- h) HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko prozeduretan interes-gatazkak sortzeko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

Era berean, Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakian xedatutakoa aplikatuko da, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-gauzatzeari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez (erabaki hori 2022ko martxoaren 4ko EHAren 46. zenbakian argitaratu zen, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpena betez), bai eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko erabakiaren bidez xedatutakoa ere, zeinaren bidez Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onartzen den (erabaki hori 2022ko apirilaren 13ko EHAren 74. zenbakian argitaratu zen, apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpena betez).

Baldin eta funtsen administrazio onuradunak funts horiek kontratu publikoak esleitzuz edo laguntzak edo dirulaguntzak emanaz bideratu behar baditu proiektu edo jarduketetara,

Resiliencia.

- g) Ley 15/2022, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2023.
- h) Orden HFP/55/2023, de 24 de enero, relativa al análisis sistemático de riesgo de conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Asimismo, resultará de aplicación lo dispuesto por Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 8 de febrero de 2022, en relación con la ejecución presupuestaria y contable, gestión y seguimiento de las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (publicado en el BOPV núm. 46, de 4 de marzo de 2022, en virtud de la Resolución 30/2022, de 1 de marzo, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento), así como por el Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 29 de marzo de 2022, por el que se aprueba el “Plan de medidas para cubrir los requisitos antifraude, conflicto de interés, doble financiación y ayudas de estado y daño no significativo al medio ambiente, exigidos en la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia” (publicado en el BOPV núm. 74, de 13 de abril de 2022, en virtud de la Resolución 40/2022, de 6 de abril).

Cuando la Administración beneficiaria de los fondos vaya a destinar los mismos a proyectos o actuaciones por medio de la adjudicación de contratos públicos o del

honako hauek ere aplikatuko dira, dagokionaren arabera:

- 1) 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.
- 2) 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren (azaroaren 17ko 38/2003) Erregelamendua onartzen duena.
- 4) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

HIRUGARRENA. – Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hartu dituen konpromisoak.

1. I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUri HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAR EURO ETA HOGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKO (352.810,38 €) laguntza bat ematea, abifauna babesteko linea elektrikoak egokitzeko jarduketei ekiteko. Finantzatu beharreko jarduketak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 4. osagaiko (Itsasoko eta lehorreko ekosistemak eta horien biodibertsitatea kontserbatzea eta lehengoratzeta) 2. inbertsioan (Lurreko eta

otorgamiento de ayudas o subvenciones, resultarán además de aplicación, según proceda:

- 1) Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.
- 2) Ley 38/2003, de 17 de diciembre, General de Subvenciones.
- 3) Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 4) Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

TERCERA. - Compromisos que adquiere la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

1. Conceder a I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U. una ayuda por importe de TRESCIENTOS CINCUENTA Y DOS MIL OCHOCIENTOS DIEZ CON TREINTA Y OCHO EUROS (352.810,38€) para acometer las actuaciones de adecuación de tendidos eléctricos para la protección de la avifauna. Las actuaciones a financiar están incluidas en la Inversión 2 (Conservación de la biodiversidad terrestre y marina), comprendida en el Componente 4

itsasoko biodibertsitatea kontserbatzea) sartuta daude.

(Conservación y restauración de ecosistemas marinos y terrestres y su biodiversidad), del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Zehazki, elektrokuzioaren aurkako prebentziorako jarduketa-ildoak honako hauek dira:

Concretamente, las líneas de actuación para la prevención contra la electrocución son las siguientes:

- a) Lineen euskarrietako kate-isolagailuak ordeztzea, esekiak jartzea zurrunen ordeztzea.
- b) Gurutzetak edo erdigurutzetak baino gorago dauden tentsio-elementuak ezabatzea.
- c) Fase guztietan isolatzea tentsio-elementuen eta haien konexio-borneen arteko zubi edo konexio guztiak, eroale isolatua erabiliz edo isolamendu eraginkorrez estalita. Lotura-euskarrietan, gutxienez 60 cm-ko distantzia bat gaitzea gurutzetaren puntaren eta beheko zubiaren artean.
- d) Beheko erdigurutzetaren eta goiko eroalearen artean, 1,5 m-ko edo gehiagoko distantzia uztea, kanadar, hiruzuloka, bertikal eta zirkuitu bikoitz erako gurutzetarako; edo fustearen buruaren eta erdiko eroalearen artean, 0,88 m-ko edo gehiagoko distantzia; edo eroale zentralaren isolamendua 1 m-koa baino handiagoa izatea lotura-puntuaren albo bakoitzerako, ganga, horizontal eta gurutze erako gurutzetarako.
- e) Kanadar motako gurutzetarako, gutxienez 47,8 cm-ko segurtasun-distantzia jartzea esekidura-katean eta 60 cm-koa lotura-katean.
- f) Hiruzuloka, zirkuitu bikoitz eta bertikal erako gurutzetarako, gutxienez
- a) Sustitución de las cadenas de aisladores, en los apoyos de alineación, de posición rígida a posición suspendida.
- b) Eliminación de elementos de tensión por encima de las crucetas o semicrucetas.
- c) Aislamiento en todas las fases, todos los puentes o conexiones existentes entre los elementos en tensión y los bornes de conexión de los mismos utilizando conductor aislado o cubrición con aislamiento eficaz. En los apoyos de amarre, habilitar una distancia mínima de 60 cm entre la punta de la cruceta y el puente inferior.
- d) Habilitar una distancia entre la semicruceta inferior y el conductor superior mayor o igual a 1,5 m, para las crucetas tipo canadiense, tresbolillo, vertical y doble circuito o una distancia entre la cabeza del fuste y el conductor central superior o igual a 0,88 m o aislamiento del conductor central 1 m a cada lado del punto de enganche, para las crucetas tipo bóveda, horizontal y cruz.
- e) Para las crucetas tipo canadiense, habilitar una distancia mínima de seguridad en cadena de suspensión, de 47,8 cm y en cadena de amarre, de 60 cm.
- f) Para las crucetas tipo tresbolillo, doble circuito y vertical, habilitar una

60 cm-ko segurtasun-distantzia jartzea esekidura-katean eta 1 m-koa, berriz, lotura-katean.

- g) Ganga, horizontal eta gurutze erako (esekidura-katean) gurutzetarako, gutxieneko 60 cm-ko segurtasun-distantzia eta erdiko eroale isolatuaren albo banatan 1 metro jartzea lotura-puntuan, lotura-katea 1 m-koa izatea eta eroale zentral isolatuarekin. Lotura-gurutzeta mota horretarako, eroale guztiak 1 m isolatuko dira lotura-graparen lotura-puntuaren kanpoko bi albotan.
- h) Aurreko ataletan zehaztutakoez bestelako gurutzeten kasuan, aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun-distantzia zehaztu gabeko gurutzeta horren diseinu antzekoena duenarentzat adierazitakoa izango da.
- i) Ez da pausatzea ahalbidetuko duen luzapenik edo antzeko gailurik jarriko.
- j) Zurezko gurutzeten ordez, aurreko puntuetan adierazitako egokitzapenak egiteko aukera emango duten beste batzuk jarriko dira.

Jarduketa horiek abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko AGINDUAN ezarritakoaren arabera egin beharko dira. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazi-espezieak ugaltzeko, elikatzeko, sakabanatzeko eta kontzentratzeko dauden lehentasunezko eremuak mugatzen dira, eta abifaunaren babes-eremuak argitaratzen dira, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan talken eta elektrokuzioaren aurka babesteko neurriak aplikatuko diren. Era berean, 2018ko ekainaren 18ko EBAZPENEAN ezarritakoa ere bete beharko da, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariarena, 1432/2008 Errege

distancia mínima de seguridad en cadena de suspensión, de 60 cm y en cadena de amarre, de 1 m.

- g) Para las crucetas tipo bóveda, horizontal y cruz en cadena de suspensión, habilitar una distancia mínima de seguridad de 60 cm y conductor central aislado 1 metro a cada lado del punto de enganche y en cadena de amarre, de 1 m y conductor central aislado. Para este tipo de crucetas en amarre, se aislarán todos los conductores 1 m en ambos lados exteriores del punto de unión de la grapa de amarre.
- h) En el caso de crucetas distintas a las especificadas en los apartados anteriores, la distancia mínima de seguridad a aplicar será la correspondiente a la señalada para la cruceta cuyo diseño sea más similar a la cruceta no especificada.
- i) No se instalarán alargaderas ni dispositivos similares que permitan la posada.
- j) Las crucetas de madera serán sustituidas por otras que permitan realizar las adaptaciones indicadas en los puntos anteriores.

Dichas actuaciones deberán realizarse conforme a lo establecido en el Real Decreto 1432/2008, de 29 de agosto, así como por la ORDEN de 6 de mayo de 2016, de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, por la que se delimitan las áreas prioritarias de reproducción, alimentación, dispersión y concentración de las especies de aves amenazadas y se publican las zonas de protección para la avifauna en las que serán de aplicación las medidas para la salvaguarda contra la colisión y la electrocución en las líneas eléctricas aéreas de alta tensión y la RESOLUCIÓN de 18 de junio de 2018, del Director de Patrimonio Natural y Cambio

Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan ezarritako agindu teknikoekin bat ez datozen goi-tentsioko aireko linea elektrikoak zehazten dituenak.

Laguntza honelaxe ordainduko da:

Lehenengo ordainketa 281.052,34 €-koa izango da, eta 2023ko abenduaren 31 baino lehenago egin beharko da, hitzarmen honetako LAUGARREN xedapenetako 3. apartatuan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Bigarren ordainketa 71.758,04 €-koa izango da, jarduketak amaitu ondoren egingo da, eta hitzarmen honetako LAUGARREN xedapeneko 3. apartatuan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

2. Hitzarmen hau erabat baliozkoa eta eraginkorra izan dadin, beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta behar diren izapideak eta jarduketak egitea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

3. Ahalik eta laguntza handiena ematea bere eskumenen esparruan baimenak izapidetu eta lortzeko, Ur Agentziari (Uraren Euskal Agentzia) dagozkionak barne, eta, ahal duen neurrian, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea (errepideak, mendiak, ingurumena, etab.), hitzarmen honetan babesten diren jarduketan izapideak bultzatu eta koordinatzeko.

4. «Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremurako Mugikortasun Jasangarriko Plana»ren esparruan proiektatzen joango diren oinezkoentzako eta bizikletentzako bideen sare osoaren berri ematea i-DEri eta

Climático, por la que se determinan las líneas eléctricas aéreas de alta tensión que no se ajustan a las prescripciones técnicas establecidas en los artículos 6 y 7 del Real Decreto 1432/2008.

El pago de la ayuda se hará de la siguiente manera:

Un primer pago de 281.052,34€ antes del 31 de diciembre de 2023 tras la presentación de la documentación recogida en el apartado 3. de la estipulación CUARTA del presente Convenio.

Un segundo pago de 71.758,04€ una vez finalizadas las actuaciones y tras la presentación de la documentación recogida en el apartado 3. de la estipulación CUARTA del presente Convenio.

2. Adoptar cuantos acuerdos y realizar cuantos tramites y actuaciones sean precisos, conforme a la normativa vigente, para la plena validez y eficacia de este convenio.

3. Prestar la máxima colaboración para la tramitación y obtención de los permisos y autorizaciones en el ámbito de su competencia, incluidos los correspondientes a la Agencia Vasca del Agua, Ur Agentzia, y en la medida de sus posibilidades colaborará con la Diputación Foral de Bizkaia (Carreteras, Montes, Medio Ambiente, etc.) para el impulso y coordinación de los trámites de las actuaciones amparadas en este Convenio.

4. Informar a i-DE, de toda la red de vías peatonales y ciclables que se vayan proyectando en el marco del “Plan de Movilidad Sostenible para el ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai”, y

horien erabilera erraztea, linea elektrikoak lurperatzera eta/edo bizikletak eta patinete elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzera bideratutako kanalizazio elektrikoetarako.

5. Hitzarmen honen lorpenak hedatzen laguntzea, lankidetzaren publiko-privatuaren bidez elektrifikazio jasangarrirantz pausoak emateko modu gisa.

LAUGARRENA. – I-DEk hartu dituen konpromisoak

1. 2022ko urriaren 6an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin batera sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren jasotako abifauna babesteko linea elektrikoak egokitzeko konpromisoak berrestez gain, i-DEk konpromisoa hartzen du elektrifikazioa eta trantsizio energetikoa sustatzeko Urdaibaiko ingurunean hitzarmenaren xede den aldiaren, Urdaibaiko eta bere eragin-eremuko sare elektrikoaren indartuz, modernizatuz, digitalizatuz eta aldatuz. Horretarako, abifaunarentzako arrisku-puntu potentzialak direnak ahalik eta gehien gutxituko dira eta haren ingurumen-integrazio globala hobetuko da.

Testuinguru horretan, jarraian deskribatzen diren jarduketak identifikatu dira, eta hitzarmen honen irismenaren parte dira:

a) **Sare elektrikoaren ahalmena eta fidagarritasuna handitzea:** Ingurunean 30 kV-eko banaketa elektrikoaren sarea indartzeko asmotan, Urdaibaiko garapen ekonomikoaren premiekin bat datozen ahalmena eta fidagarritasuna handitzeko, i-DEk 132/30 kV-eko transformazio berri bat instalatuko du Gernikako azpiestazioan, 132 kV-eko linea berri bat jarritz. Horri esker, egungo

facilitar a i-DE la utilización de los mismos para posibles canalizaciones eléctricas orientadas al soterramiento de líneas eléctricas y/o a la posibilidad de instalar puntos de recarga eléctrica para bicicletas y patinetes eléctricos.

5. Colaborar en la difusión de los logros de este Convenio como forma de avanzar en una electrificación sostenible por medio de la colaboración público-privada.

CUARTA. - Compromisos que adquiere I-DE

1. Además de ratificar los compromisos de adaptación de las líneas eléctricas para la protección de la avifauna, recogidos en el Convenio de colaboración firmado el 6 de octubre de 2022 con la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, i-DE adquiere el compromiso de impulsar, en el periodo objeto del Convenio, la electrificación y la transición energética en el entorno de Urdaibai mediante el refuerzo, la modernización, la digitalización y la modificación de la red eléctrica de Urdaibai y su zona de influencia reduciendo al máximo los puntos de potencial riesgo para la avifauna, y mejorando su integración ambiental global.

En este contexto, se han identificado, y forman parte del alcance del presente Convenio, las actuaciones que se describen a continuación:

a) **Incremento de la capacidad y fiabilidad de la red eléctrica:** Con el objeto de reforzar la red de distribución eléctrica de 30 kV del entorno, para incrementar su capacidad y fiabilidad acordes a las necesidades del desarrollo económico de Urdaibai, i-DE instalará una nueva transformación 132/30 kV en la Subestación de

eta etorkizuneko eragile ekonomikoen kontsumo elektrikoaren premiei erantzuteko ahalmena handituko da, baldin eta beren jarduera eremu horretan zabaltzen edo ezartzen badute.

- b) **Eremuko kogenerazioaren ebakuazio-ahalmena handitzea:** Aurreko atalean deskribatutako jarduketaren osagarri gisa, eta tentsioen eta eremuko 30 kV-eko banaketa-sareko potentzia aktiboaren eta erreaktiboaren potentzia-fluxuen kontrol adimendunaren bidez eremuan sortutakoa kanporatzeko ahalmena handitzeko asmotan, i-DEk potentzia-elektronikan eta babesetan (FPL-Flexible Power Link) oinarritutako mikrogrid soluzio berritzaile bat instalatuko du Bermeoko TEAren ingurunean. FPL-Flexible Power Link hori Global Smart Grid Innovation Hub delakoaren esparruan garatzen da, eta i-DEren beste apustu bat da, euskal industrian berrikuntza sustatzearen alde egiten duena. Hori banaketa-sarean instalatzeak eremuko kogenerazioaren kanporatze-ahalmena areagotzeaz gain, sareko hainbat arazo konpontzen lagunduko duten aplikazio gehigarri asko modu zabalean esperimentatzea ahalbidetuko du.

- c) **Linea elektrikoak lurperatzea eta desbideratzea:** Abifaunarentzako arrisku-puntu potentzialak ezabatzeko eta, aldi berean, instalazio elektrikoak paisaia hobeto integratzeko, i-DEk lurpean sartuko ditu edo desbideratu

Gernika a través de una nueva línea de 132 kV. Ello permitirá incrementar la capacidad de atender las necesidades de consumo eléctrico de los actuales y futuros agentes económicos que amplíen o implanten su actividad en la zona.

- b) **Incremento de la capacidad de evacuación de la cogeneración de la zona:** Como complemento a la actuación descrita en el apartado anterior, y con el objeto adicional de incrementar la capacidad de evacuación de la generación de la zona mediante el control inteligente de tensiones y de los flujos de potencia de activa y reactiva de la red de distribución de 30 kV de la zona, i-DE instalará en el entorno de la STR de Bermeo una solución innovadora de microgrid basada en electrónica de potencia y protecciones (FPL-Flexible Power Link). El desarrollo del FPL-Flexible Power Link se realiza en el marco del Global Smart Grid Innovation Hub, y es otra apuesta más de i-DE por la promoción de la innovación en la industria vasca. Su instalación en la red de distribución, permitirá no solo incrementar la capacidad de evacuación de la cogeneración de la zona, sino que permitirá realizar una amplia experimentación sobre múltiples aplicaciones adicionales que contribuirán a la resolución de diversos problemas de la red.

- c) **Soterramientos y desvíos de líneas eléctricas:** Con el objeto de eliminar potenciales puntos de riesgo para la avifauna, mejorando a su vez la integración visual de las instalaciones eléctricas, i-DE

egingo ditu jarraian adierazten diren lineetako aireko tarteak, eta, gainera, instalazioak indartu eta modernizatzeko aprobetxatuko du:

- 13,2 kV-eko TELa, Gernika-Kanala Kosta, 8. zirkuitua
- 13,2 kV-eko TELa, Gernika-Sukarrieta
- 13,2 kV-eko TELa, Bermeo-Sukarrieta
- Zirkuitu bikoitzeko 30 kV-eko THLa, Mungia-Euba
- 13,2 kV-eko TELa, Bermeo – Almika, 3. zirkuitua
- 13,2 kV-eko TELa, Gernika-Iparra, 2. zirkuitua

Jarduketa horien ondorioz, 13 eta 30 kV-eko 250 euskarri inguru kenduko dira, **Urdaibain dauden euskarri guztien % 40 baino apur bat gehiago**, eta aireko sareko 25 km inguru.

d) **Aireko transformazio-zentroak ezabatzea:** Aurreko puntuan deskribatutako helburu berarekin, i-DEk zutoinen gainean dauden 20 aireko transformazio-zentro inguru ere kenduko ditu: kasu batzuetan, baztertu egingo ditu, beste batzuetan, aldaketak egin eta inguratzaile azpiko transformazio-zentro bihurtuko ditu, zutoin azpian.

e) **Goi-tentsioko linea elektrikoak egokitzea abifauna babesteko:** Aurreko jarduketaz gain, I-DEk konpromisoa hartzen du Urdaibaiko eta haren eraginpeko eremuko linea elektrikoen 118 euskarri egokitzeko, gutxienez. Identifikatutako lineak eta euskarriak egokitzeko konponbide teknikorik egokiena I-DEk zehaztuko du, arau teknikoen arabera; dena den, hitzarmen

soterrarará o desviarará diversos tramos aéreos de las líneas indicadas a continuación, aprovechando, además, para reforzar y modernizar sus instalaciones:

- LMT 13,2 kV Gernika-Kanala Kosta Cto 8
- LMT 13,2 kV Gernika-Pedernales
- LMT 13,2 kV Bermeo-Pedernales
- LAT 30 kV DC Mungia-Euba
- LMT 13,2 kV Bermeo – Almika Cto 3
- LMT 13,2 kV Gernika- Norte Cto2

Estas actuaciones provocarán la eliminación de unos 250 apoyos de 13 y 30 kV, **algo más del 40% de todos los apoyos existentes en Urdaibai**, y de cerca de 25 km de red aérea.

d) **Eliminación de centros de transformación aéreos:** Con el mismo objetivo descrito en el punto anterior, i-DE también eliminará cerca de 20 centros de transformación aéreos ubicados sobre poste, en algunos casos prescindiendo de ellos, y en otros, modificándolos para convertirlos en centros de transformación bajo envolvente, situados bajo poste.


e) **Adecuación de tendidos eléctricos de alta tensión para la protección de la avifauna:** Además de las actuaciones anteriores, I-DE se compromete a adaptar un mínimo de 118 apoyos de tendidos eléctricos de Urdaibai y su zona de influencia. La concreción de la solución técnica más adecuada para la adaptación de las líneas identificadas y de los apoyos sobre

honen aurreikuspenak eta araudi aplikagarria errespetatuko dira.

los que se haya de actuar se realizará por I-DE conforme a las prescripciones técnicas normalizadas, respetando en todo caso las previsiones de este convenio y la normativa aplicable.

Jarduketa horiek guztiak I-DEk egingo ditu, bere bitarteko eta baliabide propioekin, eta horrek ez du kentzen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek baliabide gehigarriak eman ahal izatea, laguntza emateko eta garapena bultzatzeko. Hurrengo planoan, jarduketa horiek non egingo diren erakusten da, ahal dela.

Todas estas actuaciones, serán llevadas a cabo por I-DE con sus propios medios y recursos, sin perjuicio de los recursos adicionales que la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi pudiera decidir aportar, para colaborar e impulsar el desarrollo de las mismas. El plano siguiente muestra el área donde de forma preferente se llevarán a cabo dichas actuaciones.



Aurreikusitako jarduketak ez egitea aholkatzen duten edo egitea debekatzen duten bidezko arrazoiak badaude, I-DEk Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorri jakinaraziko dizkio.

En caso de existir motivos justificados que desaconsejen o impidan la realización de las actuaciones previstas, I-DE lo pondrá en conocimiento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2. I-DEk hitz ematen du emandako dirulaguntza erabiliko duela HIRUGARREN Estipulazioko 1. atalean jasotako jarduerak gauzatzeko, eta gutxienez 118 laguntza zuzentzeko helburua beteko duela.

2. I-DE, se compromete a utilizar la subvención concedida para la ejecución de las actuaciones recogidas en el apartado 1. de la Estipulación TERCERA, así como de dar cumplimiento al objetivo de la corrección de un mínimo de 118 apoyos.

Era berean, I-DEK, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak datozen funtsen erakunde onuraduna den aldetik, betebeharrak hauek bete beharko ditu:

- a) DNSH – «Do No Significant Harm» Printzipioa (ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitalerako kondizioak erabat betetzen direla bermatzea, honako hauek ezarritakoari jarraikiz: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana; Kontseiluaren Gauzatze Erabakia, Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa (Council Implementing Decision – CID); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koa, eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikulua (aginduak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eta hura garatzeko araudia eratzen ditu, proiektuaren diseinuaren eta exekuzioaren fase guztietan eta jardura bakoitzeko banaka). Nolanahi ere, onuradunak printzipio hori betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta hura ezartzen dela ziurtatzeko zuzenketa-neurriak aurreikusiko ditu. Zehazki, laguntza horren kontura finantzatutako jarduketak honako esku-hartze eremu honi esleitu zaizkio: 050 «Ekosistemak lehengoratzeko beste ekintza batzuk, natura eta biodibertsitatea, natura-ondarea eta baliabideak babesteko eta azpiegitura berdeak eta urdinak garatzeko». Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskinean («Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia»)

Asimismo, como entidad beneficiaria de fondos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, se obliga a cumplir las siguientes obligaciones:

- a) Garantizar el pleno cumplimiento del “Principio DNSH – Do No Significant Harm” (principio de no causar un perjuicio significativo al medio ambiente), así como de las condiciones de etiquetado climático y digital, de acuerdo con lo previsto en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, en la Decisión de Ejecución del Consejo relativa a la aprobación de la evaluación del plan de recuperación y resiliencia de España (Council Implementing Decision – CID), en el Reglamento (UE) n.º 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, así como en el art. 5 de la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia y su normativa de desarrollo, en todas las fases del diseño y ejecución de los proyectos y de manera individual para cada actuación. En todo caso la beneficiaria preverá mecanismos de verificación del cumplimiento de dicho principio y medidas correctoras para asegurar su implementación. En concreto, las actuaciones financiadas con cargo a esta ayuda se han asignado al campo de intervención 050 “Otras acciones de restauración de ecosistemas para proteger la naturaleza y la biodiversidad, el patrimonio natural y los recursos, y desarrollar

aurreikusitakoaren arabera, % 40ko koefizientearekin lagunduko dute helburu klimatikoetan, eta % 100eko koefizientearekin ingurumen-helburuetan. Ez dute etiketa digitalik.

- b) Bermatzea ez dagoela interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik, eta baldintzarik eta erreparorik gabe onartzea dirulaguntza eman duen administrazioak onartutako Iruzzurren aurkako Neurrien Plana. Hala, horren xedapenen mende egongo da erabat, eta guztiz beteko ditu autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako araudiak, bai eta Europar Batasuneko erakundeek beren finantza-interesak babesteari buruz hartzen dituzten erabakiak ere.
- c) Onuradunak dirulaguntzak ematen dituen administrazioari jakinarazi beharko dio helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso dituela estatuko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikoetatik, baina kostu beraren gaineko finantzaketa bikoitzik izan gabe.
- d) Europako Batzordeak, Iruzzurren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea. Horretarako, organo horiei emango zaie dirulaguntzari buruz eskatutako

infraestructuras verdes y azules” y, con arreglo a lo previsto en el Anexo VI “Metodología de seguimiento para la acción por el clima” del Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, contribuirán con un coeficiente del 40% a los objetivos climáticos, y con un 100% de coeficiente a los objetivos medioambientales. No cuentan con etiquetado digital.

- b) Garantizar la ausencia de conflictos de interés, fraude y corrupción, así como aceptar de manera incondicionada y sin reservas el Plan de Medidas Antifraude aprobado por la Administración concedente de la subvención, a cuyas disposiciones se obligará de manera íntegra con pleno respeto a la normativa autonómica, estatal y europea en relación con la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de interés, así como de acuerdo a los pronunciamientos que al respecto de la protección de los intereses financieros de la Unión Europea realicen sus instituciones.
- c) El beneficiario deberá comunicar a la Administración que conceda las subvenciones la obtención de otras subvenciones o ayudas para la misma finalidad sin incurrir en doble financiación sobre el mismo coste, procedentes de cualesquiera otras Administraciones o entes públicos, nacionales o internacionales.
- d) Someterse a los controles establecidos por la Comisión Europea, la Oficina de Lucha Antifraude (OLAF), el Tribunal de Cuentas Europeo y la Fiscalía Europea, para lo cual se facilitará a estos órganos el acceso a toda la

informazio guztia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

- e) Entitateak laguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko SEMetik datorrela dakiela bermatzea, eta, hortaz, bere gain hartzen dituela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendutik (hau da, SEMa ezartzen duen erregelamendutik) eta finantzaketa horri aplikatu beharreko gainerako Europar Batasuneko arauetatik edo estatu-arauetatik eratorritako betebeharrak guztiak. Hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu behar da.
